

ORDIZIA ▶ KIROLA

# Belar artifizialeko bi zelaigune berri egingo dituzte Altamira eta anexoa dauden lekuan

Majori Kiroldedia S.L. elkarteak hartuko du bere gain kirol instalazio berrien obren ardura; proiektuaren aurrekontu osoa 4,5 milioi eurokoa da



Futbol zelaiarekin batera Altamirako atletismo pista berritzeko premia aspaldi agertu zuten herriko taldeek. MAIDER DEL OLMO

MAIDER DEL OLMO

Herriko kirol instalazioak berri egingo dituzte; bi zelaigune: Altamirakoa eta anexokoa. Azpiegiturak hobetzea da helburua. Batik bat, futbola, errugbia eta atletismoari begira egin da proiektua. Kirol gunea berritzeko obrak atzo onartu zituzten, udaletxean egindako osoko bilkuran. Han zehaztu zuten zuztira aurrekontua 4,5 milioi eurokoa da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, lanak egiteko diru laguntza emango du, 1,5 milioi eurokoa.

Azken urteotan behin eta berri agertu dute herriko kirol taldeek berrikuntza horiek egiteko premia, eta orain iritsi da laguntza. Hala ere, proiektuak ez ditu denak asebetu, guztiak ez daude ados zelaiguneez izango dituzten ezaugarriekin. Atletismo eta errugbioko taldeek ez dute begi onez

ikusitako zelai berriek belar naturalaren ordez artifiziala izatea. «Bideragarritasun ekonomikoari begiratuz», ordea, hori zela irtenbide onena esan dute proiektuaren bultzatzaileek.

## Obren ardura

Hala, Majori Kiroldedia S.L. elkarteak izango da kirolgunea berritzeko obrak bere gain hartuko dituen. Lanak lehenbailehen hasi nahi dituztela

gehitu dute. Proiektuak funtsean egungoen tokian bi joko zelai berri egitea aurriztatu du. Biak ala biak Altamirako zelaia eta anexokoa dauden lekuetan, horiek hobetuz. Haien arabera, helburua federatuta dauden taldeentzat bakarrik ez, herriko talde denei lekua egitea da, herritarren eskakizunari erantzuteko. Baita eskolarteko partidak eta koadrila arteko norgehiagokak jokatzeko lekua izateko ere.

ORDIZIA ▶

## Oiangu Bizirik-ek hitzaldia emango du Altamiran

Oiangu parkea, SOS izenburupean, gaur arratsaldeko 19:00etan, hitzaldia emango dute Oiangu Bizirik plataformako ordezkariak. Altamirako Auzo Elkarteak izango da. Plataformako kideek herritar guztiari egin die bertara joan eta euren ekarpena egiteko. Bestalde, aurrerantzean ere antolatuko diren ekimenduetan parte hartzea animatu dute jendea; besteak beste sinadura bilketa martxan dagoela gogorarazi dute.



Plataformako kideak M. DEL OLMO

SEGURA ▶

## Maite Franko ipuin kontalaria liburutegian

Gaur, arratsaldeko 17:30etik aurrera Maite Franko ipuin kontalaria ariko da Segurako liburutegian ipuinak kontatzen. *Ba zen behin Andersen* ipuina kontatuko die gerturaturatuko haurrei.

ZEGAMA ▶

## Bergararen aurka jokatu dute herriko pilotariak

Gipuzkoako Herriarte pilotari txapelketan lehen norgehiagoka jokatu dute, gaur, herriko pilotariak Bergararen kontra. Astebete barru, berriz, Zegaman izango da itzuliko partida. Maila bakoitzean parte hartuko duten pilotariak honakoak dira: Estebe Ariznabarreta, Arkaitz Ariznabarreta eta Joseba Arakama (kadeteak); Unai Agirre, Eñaut Alberdi eta Gorka Aierbe (jubenilak); Iker Azurmendi, Jon Arakama eta Aitor Zabaleta (afizionatuak).

## Herriko instalazioak berritzeko inbertsio altua

Joan den uztailan Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2004/2007ko Inbertsioetarako Plan Berezia onartu zuten Foru Arau bidez. Bertan, kirol ekimenduen atalean, Ordizia-ko Udalarari 1,5 milioi euroko partida ematea aurriztatu da. Altamira kirol gunea berritzeko. Diru laguntza hori gautzeko, 2005eko uztailaren 1 baino lehenago lankidetzari hitzarmena sinatu beharko dute bi aldeek. Aldi berean, eta obrak ahalik eta azkarren hasiteko asmoz, proiektuko I. fase-

ari dagozkion obren exekuzio-proiektua idatzi da, guztira 3.228.119,88 euro. Diru hori kostako da lehenengo fasea. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz laguntzen ez dituen obrak finantzatzeko 3 milioi euroko mailegua hitzartzeko tramiteei ekingo zaie.

Mailegu hori kontratatzea aurreikusita dago, 2004. urtean idatzitako Bideragarritasun Planean, baina orain eguneratu egin beharko da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu ahal izateko. ◀



Futbola, errugbia eta atletismorako zelaiak izango dira. AIMAR MAIZ